

62. FITXA Merkatuei, hiriko merkataritza-guneei, merkataritza ez-sedentarioari eta merkaturatzeko bide laburrei babesa eskaintzeko laguntzak 2023 - NGEU

Norentzat: Udalerriak; foru-aldundiak; udalerrri bat baino gehiago biltzen dituzten eskualdeak edo bestelako erakundeak; udalerrrien mankomunitateak, 100.000 biztanletik gorako udalerrriek mankomunitateko biztanleria osoaren % 60 baino gehiago ordezkutzen ez dutenean.

Sarbide-esteka: [Portal de Ayudas del M^o de Industria, Comercio y Turismo - \(mincotur.gob.es\)](https://portal.mincotur.gob.es/)

Erreferentziatzko araudia: [BOE, 62. zk., 2023ko martxoaren 14koa](#)

Eremuak: Merkataritza

Zenbatekoa: 60.892.477 €

Aurkezpen-amaiera data: 2023ko apirilaren 14a

Laburpena

Laguntza-lerro hauek **13. osagaiari, "ETEak bultzatzeari"**, atxikita daude, 4. inbertsioen atalean, "merkataritza-sektorea bultzatzea". Helburu nagusia da **txikizkako merkataritza-sektorea kontsumo-ohitura berrietara egokitzeko eguneratu eta modernizatzen** lagunduko duten jarduerak garatzen dituzten proiektuak diruz laguntzea, **merkataritza-establezimenduetan jasangarritasuna, efizientzia, birziklapena eta hondakinen berrerabilera hobetzen lagunduko duten teknologia eta konponbide berrien ezarpena sustatzea eta prestakuntza eta sentsibilizazioa bultzatzea.**

Laguntzen helburua toki-erakundeei finantzazioa eskaintzea da, beren mugapean dagoen merkataritza-sektoreari zuzenduriko **teknologia, berrikuntza eta jasangarritasun arloetako zein ekipamenduak hobetzeko planak eta proiektuak** gara ditzaten.

Gastuetarako aldi hautagarria

2023ko urtarrilaren 1etik 2024ko ekainaren 30era bitartean sortutako eta ordaindutako gastuak finantzatu ahal izango dira.

Kanpoan geratuko dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako amaituta dauden proiektuak.

Laguntzen zenbatekoa eta mota

Egin beharreko gutxieneko inbertsioa biztanle-kopuruaren arabera izango da:

- 300.000 biztanletik gorako udalerriek: 1.000.000 euroko gutxieneko inbertsioa.
- 100.000 eta 300.000 biztanle arteko udalerriek: 500.000 euroko gutxieneko inbertsioa.
- 100.000 biztanletik beherako udalerriek: 200.000 euroko gutxieneko inbertsioa.

Emango den laguntza finantzagarritzat jo den proiektuaren aurrekontuaren **% 80koa**, gehienez, izango da, eta dirulaguntza ez da **2.000.000 eurotik** gorakoa izango.

Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak

Onuradun izan daitezkeenek laguntza-eskaera bakarra aurkeztu beharko dute, urteka banakatu ahal izango dena, eta jarraian adierazitako gastu-kategoria bat edo gehiago bildu ditzakeena:

→ **Eraldaketa digitalera** bideratutako gastuak:

- Bezeroen arreta, harremana eta ezagutza hobetzea, eta haien fidelizazioa sustatzea, teknologia berriak eta analitika aurreratuko teknikak erabiliz.
- Udal-merkatuen, merkataritza-eremuen eta merkaturatze-bide laburren eraldaketa digitalean inbertitzea, kanal digitalen bidezko salmentaren funtzionalitateak txertatzeko, mantentzeko edo hobetzeko, eta, era horretan, negozio-ereduen omnikanalitatea sustatzeko eta bezeroen ingurune digitalean erosketaren esperientzia hobetzeko.
- Publizitatea, komunikazioa eta ikusgarritasuna hainbat baliabide edo euskarri digitaletan, teknologia berriak erabiliz.
- Merkatuari, lehiari edo SEOri (bilaketa-motorren optimizazioa, ingeleseko siglen arabera) buruzko metrikak eta analisiak.
- Zibersegurtasuneko soluzioak.
- Salmenta-prozesuan hobekuntzak, teknologia berriak txertatuz, alde batetik, establezimenduan eskaerak formula omnikanalen bidez bidaltzeko eta, bestetik, eskuratutako produktuak erosi eta ordaintzeko prozesua erraztu ahal izateko, merkataritza-establezimenduetan ilarak eta aglomerazioak saihestuz.

→ **Salmenta-puntua** eraldatzeko gastuak:

- Merkataritzaren kudeaketa digitalizatzea, negozioaren barne-kudeaketako eragiketa bat edo batzuk optimizatuz, integratuz edo automatizatuz, hornitzaileekiko harremanetik hasita azken bezeroarengaino.
- Tresna teknologikoak eskuratzea, negozioaren bideragarritasunari, transmisio potentzialari edo belaunaldi erreleboari buruzko autodiagnostikoak egiteko.
- Kaleko merkataritzaren eta merkaturatzeko bide laburren eraldaketa digitala.
- Salmenta-prozesua hobetzea, eskaerak jaso zein eskuratutako produktuak erosi eta ordaintzeko prozesua erraztu ahal izateko, merkataritza-establezimenduetan ilarak eta aglomerazioak saihestuz. Zerbitzu horiek abian jartzeko obrarekin eta espazio publikoak berritzearekin lotutako gastuak, zehazki, diruz lagunduko dira, hala dagokionean.
- Obra eta eraberritzeetan inbertitzea, udal-merkatuek, merkataritza-eremuek eta merkatu ez-sedentarioek eta horien inguruko eremuek okupatzen dituzten instalazioak, irisgarritasuna ekipamenduak eta lekuen egokitzapena hobetzeko.

→ **Jasangarritasunarekin eta ekonomia zirkularrarekin** lotutako gastuak.

- Saltokiek eta kontsumitzaileek beren establezimenduetan sargaien kontsumoa murrizteko inbertsioak, eta horien ordez ingurumena gehiago errespetatzen duten beste aukera batzuk jartzea.
- Produktua edo hondakina banatzeko, entregatzeko eta, hala dagokionean, itzultzeko eragiketak optimizatzea, kostuak eta ingurumen-inpaktua gutxituko dituzten teknologia eta lankidetzako ekosistema berriak ezarriz, azken miliari arreta berezia eskainiz:
 - || Etxez etxeko erosketaren banaketa-eredu jasangarriak. Diruz lagunduko da jarduera horiek egiteko ibilgailuak erostea, bai eta merkatuetako zamalanetarako guneetan, merkataritza-eremuetan eta salmenta ez sedentariorako guneetan kargatzeko guneak erostea ere.
 - || Hiriguneetako logistika hobetuko duten biltegi estrategikoak sortzea.
 - || Zamalanetarako guneen kudeaketa digitalizatzea, bai eta merkatuetatik edo merkataritza-guneetatik gertu kalean aparkatzeko guneen erreserba ere.
 - || Entrega-puntu adimendunak instalatzea.
- Merkataritza-establezimenduetako energia-kontsumoaren eta bestelako horniduren eraginkortasuna hobetzeko soluzio teknologikoak eta inbertsioak: oinarri teknologikoa duten zein ekoefizienteak diren prozesuak edo hondakinak (biohondakinak, papera, plastikoa, beira, etab.) behar bezala bereizteko prozesuak ezartzea, ondoren birziklatu eta balioesteko.
- Energia-iturri berriztagarriak instalatzea eta berotzeko ahalmen handia duten gas hozgarri fluoratuak erabiltzen dituzten teknologiak ezartzea, erabilera komertzialeko eraikinak girotzeko balio ez duten edo atmosfera berotzeko ahalmen txikia duten beste teknologia batzuen ordez.
- Beste jarduera eta soluzio batzuk honako hauek areagotzera bideratuta: jasangarritasuna; klima-aldaketara egokitzea eta eraginkortasuna, ekonomia erresiliente eta karbono gutxiko baterantz aurrera egitea; hondakinen sorrera murriztea, produktu berrerrabilera sustatzea barne; ekonomia zirkularra; eta zero zaborra.

→ **Hornidura eta trazabilitate** kateari dagozkion gastuak:

- Tokiko ekoizle, ETE komertzial eta banatzaileen lankidetzako plataformak, elkarrekintza eta lankidetzako bermatuko dutenak.
- Tokiko hornitzaileak edo 0 'Km-koak banatzaileen merkataritza elektronikoko webguneetan barneratzeko sustapen-gastuak.
- Produktuak banaketa-bide osoan duen trazabilitatea edo beste ezaugarri batzuk ezagutzeko aukera ematen duten teknologia berrietan egindako inbertsioak.

→ **Prestakuntza** gastu hauek, merkataritza-sektoreko langile eta autonomoei zuzenduta: tresna teknologikoen erabilera eta kudeaketa trebetasunak, marketin digitala, datuen ustiapena eta analisia, hizkuntzak, merkataritza sektoreko negozio-ereduan ekonomia zirkularra, birziklatzea eta berrerrabilteza sustatzeko estrategien sentsibilizazioa.

- Jardunaldiak egiteko espazioa alokatzea.
- Jardunaldietarako beharrezkoak diren altzariak eta ekipoak alokatzea.

Horiek egiteko hirugarren bat azpikontratatzeko, baldin eta azpikontratatzeko jarduerak ez badu gaitzen diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 80, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz egiteko egin behar dituen gastuen kontratazioa. Kasu horietan, jarduera horiek ematen dituzten langileek sinatutako ordutegi-partek erantsi beharko ditu onuradunak.

- Hizlarien ordainsariak.

- █ Ikastaroen diseinu pedagogikoa, tutoretza eta ikastaroak ematea, bai online formatuan, bai aurrez aurre.
- █ Merkataritza-sektoreko langileentzako eta autonomoentzako prestakuntzarako materialak.

Inola ere ez dira diruz lagunduko bertaratuentzako ekipoak edo materialak, merchandising-ari lotutako gastuak, ezta tailerrak edo jardunaldiak egin aurretik sektoreak dituen beharrak ezagutzeko gastu egozgarriak ere.

→ **Diruz lagun daitezkeen beste gastu batzuk:**

- █ Merkataritza-guneetan WiFi sareak ezartzea.
- █ Udal merkatuei, azoka txikiei eta/edo salmenta ibiltariari buruzko informazioa ematen duten aplikazioak, tokitik gertu dauden ondare arkitektoniko, historiko edo kulturalako elementuekin edo kultura- edo arte-ekitaldien deialdiarekin batera, gastronomia-, kultura- eta erosketa-turismoa sustatzeko.
- █ Merkataritza-eskaintzari lotutako seinaleak.
- █ Merkataritza-gune irekiak sustatzeko ekintzak.

Ebaluazio-irizpideak

- Aurkeztutako proposamenaren edo jarduketaren **kalitate teknikoa**: Aurkeztutako dokumentazioaren kalitatea, horren azalpena eta erabilitako parametro teknikoak baloratuko dira: (0-5 puntu).
- Proposamenak konpondu nahi den arazoarekiko edo identifikatu den beharrekiko duen **moldagarritasuna**: (0-10 puntu). Arazoaren azalpena, diagnostikoaren kalitatea eta konpondu nahi den arazoa edo beharra identifikatzeko argitasuna, eta proiektuak arazo osoan edo haren zati batean modu positiboan nola eragingo duen balioetsiko da (0-5 puntu). Proiektuak emaitzak eta eraginak ebaluatzeko plan bat izatea baloratuko da.
- **Proiektuak enplegua edota belaunaldi-erreleboa sortzeko izan dezakeen gaitasuna**: (0-5 puntu).
- **Proiektuak udalerriko merkataritza-eskaintza dinamizatzeko, eguneratzeko eta aberasteko gaitasuna**, edo merkataritza-jarduera bultzatu eta biziberritzeko gaitasuna, merkataritzan beherakada handia izan duten eremuetan. Helburuen azalpena eta justifikazioa baloratuko dira: (0-10 puntu).
- **Ingurumenaren kalitatea eta ekonomia zirkularra hobetzen laguntzea**. Helburuen azalpena eta justifikazioa baloratuko dira, (0-10 puntu) honela banatuta:
 - █ Saltokiek eta kontsumitzaileek beren establezimenduetan sargaien kontsumoa murrizteko eta horien ordezkari ingurumena gehiago errespetatzen duten beste aukera batzuk jartzeko inbertsioak egitea (0-3 puntu).
 - █ Produktua banatzeko, entregatzeko eta itzultzeko eragiketak optimizatzea, kostuak eta ingurumen-inpaktua gutxituko dituzten teknologia eta lankidetzako ekosistema berriak ezarriz, eta azken miliari arreta berezia eskainiz (0-3 puntu).
 - █ Oinarri teknologikoa, eko-eraginkorra, birziklapena eta hondakinen berrerabilera duten prozesuak ezartzeko soluzioak inplementatzea, bai eta jasangarritasuna areagotzera bideratutako beste jarduerak eta irtenbide batzuk ere: karbono gutxiko ekonomia baterantz aurrera egitea, hondakinen sorrera murriztea, ekonomia zirkularra eta zero zaborra: (0-4 puntu).
- **Energia-kontsumoaren eraginkortasuna** hobetzeko soluzio teknologikoak eta inbertsioak. Kostuaren ehunekoak baloratuko da proiektuaren guztizkoaren gainean: (0-10 puntu).
- Erabiltzaileak linean eta fisikoki duen **erosketa-esperientzia hobetzeko** gaitasuna. Proiektuaren azalpena eta proposatutako helburuan proiektuak modu positiboan nola eragingo duen azaltzea eta justifikatzea baloratuko da: (0-10 puntu).

- Proiektuak merkataritza-jarduera handiko bide publikoetan **desgaitasuna duten bezeroen irisgarritasuna** hobetzeko inbertsioak egiteko dituen jarduerak eta gaitasuna. Udalerrian merkataritza-jarduera handia dagoen bide publikoetan egindako jarduketan kopurua, mota eta irismena baloratuko dira (material edo altzarien ikuspuntutik, teknologia berrien aplikazioa kontuan hartuta), desgaitasunen bat duten bezeroen irisgarritasuna errazteko. Kostuaren ehunekoa baloratuko da proiektuaren guztizkoaren gainean: (0-10 puntu).
- Hainbat inbertsio mota dakartzaten **proiektu integralak**. Proiektuetan ezarritako hainbat gastu-kategoria sartzea, (0-5 puntu) honela banatuta:

- Proiektuak gutxienez diruz lagun daitezkeen 2 gastu-kategoriatako jarduerak jasotzen baditu: 1 puntu.
- Gutxienez diruz lagun daitezkeen 3 gastu-kategoriatako jarduerak jasotzen baditu: 2 puntu.
- Gutxienez diruz lagun daitezkeen 4 gastu-kategoriatako jarduerak jasotzen baditu: 3 puntu.
- Gutxienez diruz lagun daitezkeen 5 gastu-kategoriatako jarduerak jasotzen baditu: 4 puntu.
- Diruz lagun daitezkeen 6 gastu-kategoriatako jarduerak jasotzen baditu: 5 puntu.

Onuradun zuzenak diren saltokien kopurua eta onuradunaren mugapeko merkataritza-ehunaren gainean ordezkatzan duten ehunekoa (aurreikusitako eragina): (0-5 puntu).

Memorian esplizituki sartu behar dira saltoki guztien kopurua, saltoki onuradunen kopurua eta saltoki onuradunen ehunekoa guztizkoaren gainean. Ematen duen ehunekoa honako maila hauen arabera baloratuko da:

- % 20 edo gutxiago: 0 puntu.
- % 20 baino gehiago eta % 25 edo gutxiago: 0,5 puntu.
- % 25 baino gehiago eta % 30 edo gutxiago: 1 puntu.
- % 30 baino gehiago eta % 35 edo gutxiago: 1,5 puntu.
- % 35 baino gehiago eta % 40 edo gutxiago: 2 puntu.
- % 40 baino gehiago eta % 45 edo gutxiago: 2,25 puntu.
- % 45 baino gehiago eta % 50 edo gutxiago: 2,50 puntu.
- % 50 baino gehiago eta % 55 edo gutxiago: 2,75 puntu.
- % 55 baino gehiago eta % 60 edo gutxiago: 3 puntu.
- % 60 baino gehiago eta % 65 edo gutxiago: 3,25 puntu.
- % 65 baino gehiago eta % 70 edo gutxiago: 3,5 puntu.
- % 70 baino gehiago eta % 75 edo gutxiago: 3,75 puntu.
- % 75 baino gehiago eta % 80 edo gutxiago: 4 puntu.
- % 80 baino gehiago eta % 85 edo gutxiago: 4,25 puntu.
- % 85 baino gehiago eta % 90 edo gutxiago: 4,5 puntu.
- % 90 baino gehiago eta % 95 edo gutxiago: 4,75 puntu.
- % 95etik gorakoa: 5 puntu.

- **Digitalizazio-maila eta sektorearen kontsumo-ohitura berrietara egokitzeko teknologiak** txertatzen dituzten proiektuak. Aplikatuko diren teknologiak eta proiektuaren guztizkoaren gaineko kostuaren ehunekoa baloratuko dira: (0-10 puntu).
- Proiektuek, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak sustatutako **ideia-lehiaketetako** ideia irabazleak edo hautatuak sartzea baloratuko da (5 puntu).

- Proiektuek **bideragarritasun-plan** bat edo baliokidea izatea baloratuko da, hirugarren pertsona batek egindako edo sinatutako txosten baten bidez aurkeztua, (tituludun eskuduna izanik, eskatzailearekin zerikusirik ez duena), baita proiektuaren helburuarekin zuzeneko lotura duen beste edozein plan estrategikoren edo garapen-planen barruan egotea ere: (0-3 puntu).
- Merkataritza-sektorean eragin zuzena duten udalek gauzatutako **berrikuntzako erosketa publikoko** proiektuak izatea baloratuko da. (0-2 puntu).

Proiektuek 50 puntu lortu beharko dituzte gutxienez.

Intereseko beste alderdi batzuk

Onuradunak proiektuaren % 100 arte azpikontratatu ahal izango du. Hirugarrenekin hitzartutako jarduerak dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20 gainditzen badu eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa bada, onuradunak kontratazio hori egiteko alde aurreko baimena eskatu beharko dio laguntza ematen duen organoari, eta baimena emantzat ulertuko da, baldin eta dirulaguntza emateko ebazpenean onuraduntzat jotzen bada.

Dirulaguntza emateko ebazpena igorrita badago, dirulaguntza ematen duen organoari eskatu beharko zaio azpikontratazio-baimena, eta hark hamar egun balioduneko epean ebatziko du. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, baimena ezetsi egin dela ulertuko da.

Eman beharreko laguntzaren intentsitatea diruz lagun daitekeen proiektuaren aurrekontuaren % 80koa denez, eskatzaileak baterako finantzaketa-konpromisoaren erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, proiektuaren aurrekontu finantzarri osoaren gaineko ehunekoia nork bere gain hartzen duen zehatzuz.

Eskaera ministerioaren egoitza elektronikoaren bidez egingo da modu elektronikoan eta esteka hau erabiliz:

[Portal de Ayudas del Mº de Industria, Comercio y Turismo - \(mincotur.gob.es\)/](https://www.mincotur.gob.es/)